

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Aztarna globala

Helburuak

- Aztarna ekologikoaren kontzeptua erabiltzea munduko herrialdeetako naturaren erabilera desberdinak azaltzeko
- Norberaren aztarna ekologikoa kalkulatzeko, eta kalkulu horri buruzko gogoeta egitea

ITURRIA

“Planeta bizia” txostena, 2010. WWF

LANDUTAKO GAITASUNAK

- Kultura zientifikoa, teknologikoa eta osasunari buruzkoa
- Informazioaren tratamendua eta teknologia digitalaren erabilera
- Norberaren autonomia eta ekimena
- Gizartea eta herritartasuna
- Komunikazio linguistikoa

BALIABIDEAK

- Internet

Ekintza


Esteka honetako testuaz baliatuta, kalkulatu zeure aztarna ekologikoa.

<http://myfootprint.org/es/>


Kalkulatu duzu zure aztarna ekologikoa? Eta ikasgelarena?


Mapa honi begiratu, eta esan munduko zein eskualdek duten zeurearen antzeko aztarna.

Aztarna ekologikoa, pertsonako



Pertsonako aztarna ekologiko erlatiboaren mapa, 2007koa. Zenbat eta ilunagoa kolorea, orduan eta handiagoa pertsonako aztarna ekologikoa (Global Footprint Network, 2010).





Zenbait faktorek eragindako ondorioen bitartez azalduko dugu hemen gure planetaren aztarna ekologikoa. Grafikoa aztertu ondoren, saiatu galdera hauei erantzuten:

- **Zer adierazten du Lurraren biogaitasunak?**
- **Zein urtetik aurrera hasi zen nabaritzen Lurraren aztarna ekologikoaren eta biogaitasunaren arteko desoreka? Zergatik?**
- **Zer faktorek eragiten du gehien desoreka horretan?**

• **Proposatu neurri batzuk zure ikastetxean desoreka hori murrizteko**

• **Zure ustez, planeta bakarra edukirik, zergatik genuen gizakiok 2007an hura 1,5 bider erabiltzeko gaitasuna?**

Hautatu eta arrazoitu zure erantzuna:

1. Gizakiok baliabide naturalak erabiltzen ditugun bitartean Lurrak, etengabe, beste horrenbeste edo gehiago sortzen dituelako.
2. Lurrak sor ditzakeen baino baliabide natural gehiago erabiltzen ditugulako gizakiok; adibidez, urte batean jaiotzen diren baino arrain gehiago jaten ditugulako.
3. Baliabide naturalen kontsumoa murrizten ari delako, eta baliabide soberan dugulako.

